



Ormaiztegui Udala

Udai1-batzarre
E-20.12.05

2020ko abenduaren 28ko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE EZOHIKOA

ORMAIZTEGIIn, 2020ko abenduaren 28an, arratsaldeko 14:00etan, Udaletxeko Batzar Aretoan, Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA alkate jaunaren lehendakariitzepean BATZARRE ezohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaion AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Dunixi MURUA ANTIA Jna.
- Juan LOBATO AMADO Jna.
- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- M. Lierni YURRITA ARREGI And.
- Agustín GILABERT MOLINS Jna.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatuta:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.

Segidan Lehendakariak hasiera ematen dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik herena bertaratu denez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-20.12.06

...//...

LEHENENGO PUNTUA: **2021eko UDAL AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak zuzenean bozkatzea proposatu du, Kontuen eta Ogasun Batzordean aurretik eztabaidatuta gaia izaki eta udalkideen esku jarri dela kontuan hartuta, eta beste eztabaidarik gabe ekin zaio bozkatzeari. Aldeko botoak izan dira guztiak eta aho batez onartu da behin-behinean 2021eko Udal Aurrekontua.

BIGARREN PUNTUA: **2021eko LANPOSTUEN ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Idazkariak hitza hartu du eta adierazi Consultores de Gestión Pública (CGP) aholkulari taldeari eskatu zitzaion azterketaren emaitzek erakutsi dituzten gabeziak gainditzeko asmoarekin prestatu dela datorren urteko lanpostuen zerrenda, CGP-ren gomendioei jarraiki, baina hor egindako aldaketek ez dutela zuzkidura berririk suposatuko 2021eko Udal Aurrekontuan.

Ez da udalkideen aldetik ekarpenik edo eztabaidarik sortu eta alkateak bozkatzea proposatu du. Aldeko botoak izan dira guztiak eta aho batez onartuta geratu da behin-behinean 2021eko Lanpostuen Zerrendaren eta Plantilla Organikoa.

HIRUGARREN PUNTUA: **IGERILEKUAREN OBRARAKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA**

Alkateak azaldu du, igerilekuaren obrari hasiera emateko, osasun eta segurtasun koordinatzailea izendatuta dagoela eta alkatearen ebazpenez onartu dela behin-behinean Segurtasun eta Osasun Plana.

Hala ere, Plenoa denez behin betiko onarpena emateko eskumena duena, udalkideen esku jarri dela Plana adierazi du alkateak eta eztabaida ireki da. Ez du inork ezer esateko izan eta bozkatzeari ekin zaio. Bozka guztiak aldekoak izan dira eta ahobatez onartu da behin betiko igerilekuaren obrarako Segurtasun eta Osasun Plana.

LAUGARREN PUNTUA: **UDALAREN 2021EKO LAN EGUTEGIA ONARTZEA**

Urtero bezala, aurten ere, hurrengo urterako Udalaren lan egutegia proposatu du alkateak, bertan batzordeen eta udalbatza osoaren bilera egunak jasotzen dituen baita udal bulegoen egutegia eta ordutegia ere.

...//...

E-20/12-02



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-20.12.07

...//...

Zinegotzi jaun-andreek ez dute iritzirik edo iradokizunik eman eta bozkatu egin da. Aldeko botoak izan dira guztiak eta onartuta geratu da.

BOSGARREN PUNTUA: **UDAL LANGILEEN 2021EKO LAN EGUTEGIA ONARTZEA**

Urtero bezala, aurten ere, hurrengo urterako beraien lan egutegia proposatu dute udal langileek, Lan Hitzarmenaren araberrako urteko lanaldia zehazten duena.

Zinegotzi jaun-andreek ez dute iritzirik edo iradokizunik eman eta bozkatu egin da. Aldeko botoak izan dira guztiak eta onartuta geratu da.

Alkateak, bere aldetik, kontuan izanda kultura teknikariaren plaza oraindik ez dela bete, udalbatza osokoari kultura teknikariaren 2021eko lan egutegiaren proposamena aurkeztu dio, lanpostu horri dagozkion ezaugarri bereziei egokituta.

Zinegotzi jaun-andreek ontzat eman dituzte proposamenak eta bozkaren emaitza proposamenen aldekoa izan da ahobatez.

SEIGARREN PUNTUA: **“BERDINBIDEAN GIPUZKOA” PROGRAMAN PARTE HARTZEKO** **PROPOSAMENA ONARTZEA**

Alkate jaunak azaldu du programaren helburua berdintasunaren aldeko tokiko politiken sustapena dela eta horretarako Foru Aldundiak bere laguntza eta aholkularitza eskaini dituela, besteak beste, gidaritza edo prestakuntza bilera bat egitea eskainiz, zinegotziak etor daitezkeen ordutegi batean.

Horrez gain, alkateak azaldu du legegintzaldi honetan programan parte hartzeko aukera bakarra oraingoa dela, bi urteko konpromiso politikoa eta teknikoa eskatzen baita. Proposamena onartuz gero, aurrekontuan gutxieneko zuzkidura bat jaso behar dela argitu du.

Eztabaida ireki da baina ez da kometariorik izan eta bozkatzeari ekin zaio. Bozka guztiak aldekoak izan dira eta Udalak programan parte hartzea onartu da.

Bilkuraren puntu honetara iritsita, 14:25 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da.

Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

...//...

E-20/12-03



Ormaiztegui Udala

Udalbatzarre
E-20.12.08

Ormaiztegin, 2020ko abenduaren 29an.
Idazkaria-Kontuhartzailea,



Sin. Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...

E-20/12-04



Ormaiztegi Udala

udal-1-batzarre
E-20-12.09

...//...

Udal Pleno Osokoaren kontsideraziora ezarria izan delarik **2021eko urtarrilaren 18ko Batzarre Ohikoan** honako Akta-Minuta hau eta aurkeztua izan den eran onartua gertatzen da.

Ormaiztegin, 2021eko urtarrilaren 20a.



Lehendakariak,

Idazkari-Kontuhartzaileak,